

# GAUTENA

Gaur

28 Zk.

Abendua 2005



## José Antonio Zubiaren omenez

### Lagun maitea:

Hamar urte baino gehiago joan dira zu ezagutu zintudanetik. Zuk proposatutakoari erantzunez, GAUTENako Zuzendaritza Batzordeko kide izatea onartu nuen.

1978. urtean zuk eta autismoa zuten beste pertsona batzuen gurasoek sortu zenuten elkartearen alde egin duzun lan emana eta zuhurra beti hartu izan dut aintzat. Autismoa duen pertsona baten aita edo ama garen aldetik, zenbat aldiz izan zaituztegun gogoan GAUTENA abian jartzeko lana egin zenutenok. Nolako izango zen gure bizimodua gure eta beste batzuen seme-alaben alde egindako lan eskerga horren emaitzarik gabe? Ziur nago gure bidean izan ohi ditugun oztopoei beste batzuk gehituko zitzaizkiela; zu bezalako pertsonak egindako lanari esker izan ez ditugun oztopoak, hain zuzen ere.

Duela denbora bat, GAUTENAKo zuzendariorde izan nendila erabaki zenuten, eta, gaurko egoera honek elkartearen zuzendari izan nadin eskatzen du. Jakin ezazu harrotasun handiarekin eta egina dagoen lanari zor diodan errespetu osoarekin onartu dudala kargua.

Zuzendari gisa idatziko ditudan lehendabiziko hitzak zuk egindako lana onartzeko eta zuri eta zure senideei, pertsonalki eta GAUTENAKo familia guztien izenean, gure eskerrik beroena adierazteko baliatu nahi ditut.

Aldi berean, adierazi nahi dut izugarritzko pozbidea izango dela zuk, beste familia batzuek eta GAUTENAKo profesionalak taxutzen jakin duzuen bidea jarraitzea.

Zuk bezala, guk ere onena lortu nahi dugu gure seme-alabentzat. Zuk bezala, GAUTENA izan dedin eta aurrera egin dezan ahalbidetzen dutenengan uste osoa dugu. Badakigu lan jarraitua egitea eta gure seme-alaben bizimodua hobetzea lortzea dela giltza.

Bihotz-bihotzez, mila esker, Jose Antonio!

Juan Cid. Lehendakaria

### Jose Antonio, maitea:

Lehenago ezagutu bazintudan ere, 1988. urtearen erdialdera hasi nintzen harremana izaten zurekin, GAUTENAKo zuzendari moduan.

Gogoan dut egun hartan, GAUTENAn egiten ari naizen ibilbidearen hasieran, elkartearen inguruko hileta elizkizun batera joan ginela elkarrekin eta honako hau esan zenidala:

«Zuk eta biok senar-emazteek bezala funtzionatu behar dugu... elkarrekin egon behar dugu gauza onetarako eta bai txarretarako ere». Eta horixe egin izan dugu beti. Hil egin zinela jakin ondoren, gogoan izan dut elkarriketa hura; beste gauza batzuek baino hobeto, GAUTENAKo lana ulertzeko zenuen modua, gauza handietara ez ezik, txikietara ere hurbiltzeko zenuen joera eta zugandik beti jaso izan dudana laguntza ezin hobeto zehazten dituen elkarriketa, hain zuzen ere.

Aukera hau baliatu nahi dut gure elkartearen historian izan duzun garrantzia nabarmentzeko. Duintasun izugarriarekin ordezkatu zenuen GAUTENA. Etxekoen eta ezezagunen begietara, jarrera zintzoaren eta lan zentzudunaren adibide prestua eta jatorria izan zinen.

Beste familia batzuen eta profesionalen laguntzarekin, GAUTENAREN proiektua aurrera ateratzen jakin zenuen. Badakigu ez zela batera erraza izan, eta horregatik, gaur talde osoak eskertu behar dizu egindako lana. Beste pertsona batzuek uste osoa izaten,

lan egiten uzten, eta, hartara, GAUTENA bide onetik joan zedin laguntzen ere jakin zenuen –kontu oso garrantzitsua eta ez beti erraza, gainera– eta, betiere, familien eta profesionalen arteko lankidetzaren parametroen arabera, Administrazio Publikoarekin lankidetzaz izanda eta alorreko beste erakunde batzuei eta, oro har, gizarte osoari elkarre irekita.

GAUTENAREN alde egin duzun ahaleginaren berri izateko leku ezin hobean egon izan naiz ni. Horregatik, gauzen berri aski jakinik, esan dezaket asko zorretan daudela zurekin, nahiz eta beraiek ez dakiten. Nik beti eskertuko dut etengabe eman zenidan laguntza. Elkarri genion errespetuak zigilatutako adiskidetasuna bilakatu zen gure harremana.

Eskerrik asko eta beti arte, Jose Antonio!

Ramon Barinaga. Zuzendaria



Jose Antonio Zubia Antzoki Zaharrea 25. urteurreneko ekitaldia aurkeztzen (2003ko apirila)

## Josean maitea,

Urte asko eta makina bat gauza gertatu dira elkar ezagutu genuenetik, eta ezinezkoa iruditzen zait zu gure artean ez egotea. Zu ezagututa, izugarri ondo dakit zer esango zenigukeen: «Aurrera dago egin beharra», «Konfiantza izan beharra dago»... eta zure betiereko irribar-rearekin begiratuko zeniguke. Haserretzen zinenetan ere eutsi egiten zenion irribarreari!

Orain hainbeste denbora Aransgin izan genuen bilera hartan, elkar ezagutu genuenean, «seme-alaba autistak dituzten gurasoak» irriti programak deituta, zuk zenuen sendotasuna erakutsi zenuen, ideiak zein garbi izaten zenituen, bai eta zure zentzumena ere gure bizitzetako proiekturik garrantzitsuen sustatzeko. Gure seme-alabak nork zaindu izan gabe ez geratzea, alegia; euren adinetara egokitzuz joango ziren zerbitzuak sortzea, babesik gabe ez geratzea gurasoak falta izango dituztenean...

Zure gogo biziak eta buru-belarri lanean aritzeko grinak kutsatu egin gintuen. Bilerak, bidaiak, kontsultak, eskaerak, eskariak... Berdin-berdin ziztaizun txistorra saltzen aritzea edo diputatuarekin egotea, gure lehen Zentroko itoginez kezkatzea zein pertsonaia garrantzitsuekin bazkaritarako elkartzeari. Beti eskura, beti xume, beti besteak laguntzeko prest, beti garrantzia kentzen egiten zenuenari. Halakoxea izan da gure presidentea ia hogeita hamar urtean.



Jose Antonio bere emazte Mary eta beste senide fundatzaileekin, 25. urteurreneko ekitaldian (2003ko apirila)

Eta zure ametsa betez joan da, erabat banatuta zegoen Azkarate Enea zahar hartatik, gure lehen garaipen gisa hartu genuen hartatik. Dena berria zela iruditzen zitzaigun lehen «Simposium» haietatik. Orientatuko gintuzten profesional bila, ulertuko gintuzten erakundeen bila eroen pare ibiltzen ginen garai hartatik. Izugarritzko atsegina zen zurekin lan egitea...

Gure lehen erronka «hastea» izan zen, gero lehen koloniak iritsi ziren, asteburuetak arnasak, ondoren integratutako ikasgelak, Eguneko Jardueretako Zentroak (EJZ), eta, azkenik, egoitzak... Gaur Kalitatea dira, lkerketa, Tutoretza fundazioa... Antza denez, begi-bistan zenuen guztia zure adibidearekin animoak ematen zenizkigunean, beti presidente izan zinen Elkartearen zerbitzura izateko jarrera konstantearekin, setatsuaekin eta aldagaitzarekin.

Gautena zeure obra da. Zeure itxura eta antza aintzat hartuta eginez joan da: irekia, atzerik gabea, gure autistekin eta haiei laguntza ematen dieten profesionalekin modu eksklusiboan kezkatua. Eta huraxe da gure ardura, eta horixe bera zor dizugu: zuk ezarritako bideari jarraitzea. Euren alde adoretz, baikortasunez lan egiten jarraitu behar dugu, zure, gure Proiektu handia desitxuratuko duen bestelako anbizioirik gabe.

Eskerrik asko Josean, beti izango zara gure presidente laguna, inoiz ezin izango zaitugu ahaztu.

**Senide fundatzaile batzuk**

## JOSE ANTONIO ZUBIAK EMANDAKO HIRU IRAKASPEN

Maite dugun pertsona bat hiltzen denean, galera horrek sortzen duen tristura arintzeko modu bat izan ohi da gogora ekartzea elkarrekin izan ditugun memento onak, pertsona horrek zer-nolako esanahia izan duen gure bizitzan eta zer irakatsi digun.

Hasteko, Jose Antonio beti izan zen, presidentzialista izan gabe, zuzendari izateko gai. Ez nion inoiz singularrean hitz egiten entzun, bere buruari garrantzia eman nahian... beti pluralean egin ohi zuen, gauza asko komunean ditugun pertsonok osatzen dugu talde honen zati moduan. Inoiz ez zen bere arrakastez harrotzen; arrakasta horiek denonak izan ohi ziren. Gogoan dut hasiera-hasieratik hunkitu ninduela haren eskuzabaltasunak. Izan ere, lanean hasteko, haurtxoak hautatu genituen, Jose Antonio eta Maryren semea ez zen haurtxoa eta eraman onez itxaron zuten zerbitzua jaso arte, beste batzuek lehenago jaso zezaten. Ez zuen bere kargua erabili onura bereziak lortzeko. Modu horretan erakutsi zuen, nire ustez, zer-nolako zuzendaria izango zen. Eta horrela jarraitu zuen amaiera arte.

Gero, erronka handi bati aurre egin zion: autismoa zuen seme bat izatea, gaixotasunaren gaineko informazio gutxi zegoen eta ia ezertxo ere egiten ez zen garai batean. Etsita, etxean gelditi zitekeen, baina ez, borroka egin eta zeukan arazoa irtenbideak bilatzeko baliatu zuen; irtenbideak berarentzat eta bai gainerakoentzat ere. Zein izan daiteke hori baino adibide hobeak, bizitzako erronka zailak konpontzen dituen eta arazo berbera dutenek konponbideak aurkitzeko bidea ematen duena baino? Eta hori eginda, ia oharkabean, gure elkarteak hobeak izan zedin egiten genuen: teknikari dagokionez, hobeto prestatua; gizarteari dagokionez, ahalmen handiagokoa, ulerkorragoa eta elkartuagoa. Gipuzkoari lagunduta, bere seme Txemari lagundu zion, eta Gipuzkoak Txemari eta beste Txema batzuei lagundu zion.

Eta amaitzeko, Jose Antoniok bizimodu osoa izaten irakatsi zidan, izugarri gogoko zuen eta bete-betean aritzea eskatzen zion zeregin batekin. Bere lanak egiten atzeratu egiten zen – beti zegoen langileen korporazioei leporatzea atzeratu izana–, baina berak ere berandua kobratzen zituen fakturak. Oso pertsona bizia zen eta gauza txikiak gozatzen zuen. Senideen senide, lagunen lagun, danborradako danborraria, gastronomia elkarteak sukaldaria... Orain, autismoa duten pertsonen gure laguntza emateak duen helburua kalitateko bizimodua, inguruan integratua, aktiboa, emana, sortzailea, askiesgarria... lortzea dela esaten dugunean, iruditzen zait GAUTENAN hartzen ditugun pertsonentzat berak adibide praktikoa ematen zuela.

Inbidia ematen dit zuzendari, autismoa zuen pertsona bat guraso eta pertsona moduan izan zenuen bizimoduak. Ez zaitut inoiz ahaztuko.

**Joaquin Fuentes. Mediku Aholkularia**

## EGINDAKOEN GAINEKO KONTAKIZUN LABURRA

Hura bai izan zela ezerezetik hastea, Jose Antonio! Lehendabizi, diagnostiko zehatz bat lortu nahian, alde batetik bestera ibili beharrak dakarren kalbaria bizi behar izan zenuten. Erakunde askotara jo zenuten, eta denetan «zuen semeak ezin du hemen gelditu, ezin dugu hemen sendatu» esaten zizueten behin eta berriz. Benetan bide zaila izan zen.

1978. urte inguruan, autismoa zuten pertsonen guraso batzuk harremanetan jarri zineten, irriti bidez abisuko bidalita, eta, azkenean, pertsona eta erakunde ezagun batzuen gomendioei jarraituz, autismoa zuten pertsonak zaintzeko elkarte espezifiko bat sortzea erabaki zenuten.

Orduan, lehendabiziko udal demokratikoak eratu baino lehen, Donostiako Udala Kudeaketa Agentziara jo zenuten, eta horrek Azkarate Enea emanda lagundu zizuen. Horren ostean, taldea osatzen hasi zineten, lanerako profesionalak hartzen, Administrazioaren laguntza bilatzen, eredia hautatzen...

Eta prozesu horretan guztian, zuk zerorrek, Jose Antonio, eta beste batzuek zerikusia handia izan zenuten. Ardura, orduak –zuen lanorduetatik kanpo ordu asko eta bai familiari eskaini beharrekoetatik ere–, zentzua eta intuizioa eskaini zenieten lan horri. Hartara, eta profesionalen laguntzarekin, diagnostikoari eta autismoa duten pertsonen hezkuntzari garrantzia ematen hasi zineten. Gero 80.eko urteetatik aurrera, etorkizuneko ikuspegiarekin, Eguneko Jardueren Zentroa jarri zenuten abian.



Jose Antonio Zubia Oriamendiko Etxebizitza eta Eguneko Zentroaren irekiera ekitaldian (2001ko urtarrila)

80ko hamarkadaren erdialdera, egonaldi laburrek, asteburuetak egonaldiak, familiari laguntza emateko zerbitzuak eta astialdi zerbitzuak duten garrantziaz ohartu zineten, eta hamarkadaren bukaera aldean Etxebizitza Zerbitzua jarri zenuten martxan.

Eta modu horretan atzo arte, autismoa duten pertsonen eta haien familiei zerbitzu hobeak eman nahian, interes handia jartzen, Administrazioarekin eta alor honetako beste erakunde batzuekin harreman ona izaten, kalitatea eta ikerketa dela-eta kezkatuta, beste programa batzuen berri izaten, irizpideak eta ekintzak partekatuz, haietatik ikasi ahal izateko.

Egun, Gipuzkoan, hirurehun familia baino gehiagok laguntza zerbitzua jasotzen dituzte eta 170 profesionalak osatutako lan-taldea ari da lanean. Hori guztia zuek egindako ahaleginen emaitza da. Beraz, zuk hori guztia lortzeko egindako lana dela-eta, askiatsirik egoteko arrazoirik baduzu. Eta ez bakarrik lortutako guztiagatik, baizik eta irekitako bideagatik, bide horrek egindako lan guztiari jarraipena emango baitio.

Eskerrik asko, Jose Antonio!